

Teresa Deuna euskalHiteraturan

Avila'ko Teresa andia ez zen bizi izan euskaldunekin asarre. Adiskide eta laguntzaille andiak aurkitu zituen euskaldunen artean eta, esker oneko zanez, euskaldunak aren biotzean maitasunezko txokoa izan ebela esan bearrik ez dago.

Euskaldun adiskideon artean guztietarikoak egozan: eleizgizon, laiko, praille, moja, ezkondu eta abar. Baziran napar eta giputzak, baziran bizkaiko eta arabakoak. Gotzainen artean, or dira Otadui giputza, eta Axpe Sierra, Bizkaikoa. Prailleen artean, aparteko aitamena zor jako Aita Banez Artazubiaga, teologo andiari. Gaztelan jaioa dan arren, berak euskalduntzat eukan bere burua, Arrasateko jatorrikoa. Ama Teresak izan eban ordurik larrienetakoan, Avilako agintariak eta erri-batzar osoak arek sortutako lenengo moja-etxea itxi-erazo nai eutsenean, Avilara etorri barri zan praille gazte orrek bakarrik atera eban burua batzar guztiaren aurrean Teresaren aide, eta aurka eukazan guztien zaratak ixildu eta bakea ekarri.

Andik amazpi-amazortzi urtera, euskaldunak ditu inguruan, azkenengo moja-etxeak eregiten dabillanean, eta Euskalerrian sartzeko amesetan ebillen. Soria aldetik eta Burgos aldetik ia Euskalerriko mugetaraiio eldu da: Soriatik Nafarroako mugetara, eta Burgos aldetik, Araba-Bizkaikoetaraino.

Uri biotako karmeldegia euskaldunen laguntzari esker egin ditu. Sorian dala, gainera, Iruiera igaroteko eskea etorri jako, eta an beretarrentzat moja-etxe bat sortzeko eria eskeintzen deutse. Beste olangoxe eske bat Sorian dala jatorko, Ordunarako. Bizkaiko uri bakar onetako neska gazte batek, alaba bakarra eta umezurtza berau, bere burua, etxalde eta ondasunakaz batera, eskeintzen deutsoz, an be Karmengo Amaren usategitxo bat egiteko. Eskeintza atsegingarria Tere-sarentzat! Baifia beste arazo batzuen erruz, Ordufiara ezin etorria izango dau. Neska gaztea moja sartuko da, bai; baifia Ordunako etxaldea artzerik ez dau izango. Beste eske bat, bardin antzekoa, Gazteiztik eldu ei jakon, Burgosko etxea atontzeko zereginetan ziarduala. Baifia munduko aldia ainaitzeko, Jaunagana joateko ordua eldu jako eta ez dau izango inon beste Karmeldegirik sortzeko erarik. Burgoskoa izango dau azkena.

Sorian nappar andiki batzuk izan ditu laguntzaille, Bea-monte eta Ayanztarrak. Burgos'en, berak esan eban lez, «Biz-

Srakurri **zazuta...** «KARMEL»

Srakurr 3-azi zazute «KARIV1EL»

CURE ALDIZKARIA»

«ZURE ERREB1STA»

« K A R M E L »

Urn ko eskupekoa: 300 pia.

Zuzenbidea Karmen, 2

E I B A R G I P U Z K O A

kaiko alaba jainkozale» bat, Katalina Tolosa, Sebastian Muntxaraz izanaren alarguna. Senar-emazte biok Burgosen merkataritza ibilliak ziran. Teresak autor au egiten dau Katalina orren aide: «Jainkoaz ostean», andre orri zor eutsala Burgosko etxea aurrera ateratea. Katalina orrek gerotxoago egin eutsan Teresari eskeintzarik atsegingarriena: bere zazpi seme-alabak praille ta mojatako emon eta azkenez, bera zortzigarren, moja sartu. Eta zelan ez aitatu Burgosen erabilli zituen gorabera eta neke guztietan laguntzaille zintzo izan eban praille karmeldarra, Pedro izenekoa, orduko paper zarretan «vizcaino» esaten deusena, Gazteiz ondokoa izatez?

Ez dago ukatzerik, Euskalerrria, bai agotan eta bai ondo biotzean, erabilli ebala Ama Teresak bere azkenengo egunetan. Eta il zaneko komentuak berak, Albakoak, ez ete eutsan Euskalerrria gogora ekarten? Albako moja-etxe ori, orain Teresaren illobia daukan ori, ango arri baten antxifiatik idatzirik dagoanez, jatorriz euskaldunak ziran senar-emazte bik, Simon Galarza eta Teresa Lariz-ek, lagunduta egifia eban. Arri orretan esaten danez, Leintza-Elorriokoak ziran, jatorriz. Avilakoak Avilara eroan nai eben illaren gorpua. Baifia Teresak: «Zer bear dot nik neurerik euki? Ez deustazue emen lur apurtxo bat emongo?». Eta an dago, Abilatarrak egindako aleginen gorabera, an jarraitzen dau berak maite zituen Leintza-Elorriotar orrean azurren ondoan, Albako karmeldegian.

Ez zan bera gorputzez Euskalerrira etorri, baifia bai biotzez. Ilda gero, barriz, bere seme-alabetan eta bere maitaleetan, sustraiak sakon egin eta zabaldu ditu emen. Munduan ez dago, bearbada, beste lurralderik Teresa Amaren izenean eta eragifiaz sortutako karmeldegiz eta etxez beteagorik Euskalerrria baiio. Teresazaletasunez gureak ez deutso ezer zor beste inongo erriri. Gure erriak abegirik zabalena egin deusala Avilako emakume andi oni argi dago.

Baifia ez dot nik oraingoan ori azaltzen ekiteko lumea artu. Idazlan onetan asmo laburragoa dot. Euskal-literaturak Teresari egin deusen arrera eta abegia, euskal-literaturan itxi dauan aztarren eta lorratsak aztertu eta erakutsi gura ditut, zer egin dan euskeraz Teresaren barri emoteko, Teresa goratzeko, edo Teresaren esanak eta idatziak euskeraz zabaltzeko.

Egia esan, irakurleak ez dau erren gauza andi andirik aurkituko. Aurretiaz jakin begi orixe. Euskaldunok, Ama Teresaren aldera, euskaldunen antzera jokatu dogu: egitez luze izan gara, bearbada, baina berbaz, itzez urri. Olakoxe ospea genduen euskaldunok aren egunetan. Ba-ekian berak be ori: euskaldunok berba gitxikoak ginala. Bere adiskide bati, aspaldian ezelango barririk emoten ez eutsala-ta, «oso euskaldun, oso bizkaitar biurtu zara nigaz», idatzi eutson bein. Ez da bera arrituko, eta ez gaitez gu arritu, baldin gure literatura, berez urria, gai onetan urri agertzen bada. Urritxoa da, izan be, baina ez gauza utsa. Teresaren lau edo bost bitzta idatzi izan dira euskeraz. Sermolaririk be izan dogu Ama euskeraz goratzeko sermoirik idatzi dauanik. Olerkari batzuk bertsoan goratu izan dabe. Eta Teresaren bertso batzuk abegi ona izan dabe idazle batzuetan, eta erri-erriraino sartuta aurkitzen ditugu. Beste ifiongo erritan jazo ez dana, bear bada.

LARREGI, lapurtarra

Ama Teresaren euskerazko lenengo bitzta Lapurditik dator. Bernard Larregi, Basusarriko jaun erretora da egille. Amazortzigarren gizaldian, 1775tik 1778ra, Ian mardula atera eban, zati bitan: *Testamentu zohar eta Berriko Historia*. Royaumont zalako batek frantsesaz eginikotik euskeraratutzat dago. Baiia ori ez da osoan egia. Royaumont orrena aurrean izanik egina dala esatea obeto legoke. Ez dabil frantsesari loturik, eta frantsesak ez dakarrenik asko dakar: esaterako, kapitulu bakoitzean dituen azken-aldeko gogoetak. Frantsesak ez dakar olangorik. Larregik berak ezarri eta geituak dira nonbait. Liburuaren azaleko itz batzuk argi apur bat emoten deuskue. Itzulpena «exenplu eta erreflexione sainduekin» datorrela dino. Gogoeta orreik Larregirenak dira. Eta, batez, eta au da gure arira datorrena, frantsesak, Royaumont orrenak ez dauka azkenenan santuen bizitzarik, eta Larregiren euskerazkoak bai. Larregik berak idatziak, nonbait.

Emen dator ain zuzen, Ama Teresaren euskerazko bitzta ori. Guztiz 24 santuen bitzta dira, Andra Mariarenaz eta Migel

goiangeruarenagaz asita. Santurik barrienak, oraintsuengoenak, Salesko Frantsizko eta Ama Teresa. Ez dau sartu ez Loio lakoarena, ez Xabierkoarena (urte areitan jesuitak kendubarrri egozalako, antza); Teresarena, bai. Badirudi, gero ikusiko dogunez, Larregik eraspen eta maitasun berezia eutsala Avilako Santa oni.

Bizitza onetan, Teresa moja sartu zan arteko bizia naiko luze emon deusku: santuen bizitzak irakurrita, umetan sortu jakon martiri izan gurea, ipuin-liburu arifiak irakurrita izan eban epelaldia eta abar. Avilako moja-etxe barria sortu ebanetik aurrerakoa, erririk erri komentuginan ibilli zanekoa, labur amaitzen dau. Illaren gorpua euki gurez, Albakoen eta Avilakoen artean sortu zan eztabaida dala-ta, oker anditxoa dakar. Avilak lortu eban bein gorpua Avilara eroatea, baifia andik laster Albara biurtu bear izan ebelakoa eta an dagoelakoa ez dau jakin. Teresa kristainau-erri guztiaren arrigarri ei da, eta arrotxo amaitzen dau. «Guk ere badugu haren erlikarik bat Frantzian, Parisko karmeliten elizan.

JOANNATEGI idazlea

Lapurditik ez urtetearren, Joannategi idazle gozo eta ugarriak idatzitako bizitza dakargu bigarren. Lenengo abade egon eta gero beneditar sartu zan onek sei liburu atera zituen euskeraz eta naiko lodiak batzuk. Gainera, berau asi zan euskera utsezko mixio-aldizkari bat, ille birik beingoa ateraten, 38 urte inguruko bizia izan eban aldizkaria. Urte askotxotan Joannategi onen eskuetan egon zen aldizkari ori idatzi eta aterateko neke guztia.

Eun santuen bizitzak daukazan liburua da lenengo argitaratu ebana. Urtebarru guztitik aukeratu ditu, ille bakotxetik zazpi-zortzi-amarren bat artuta, Eleizan ospatzen diran ezagunenetatik. Urriko santuen artean Ama Teresarenak bere lekua dauko.

Teresaren umetako eta gaztetako barriak andi-andika eralgi ondoren, moja-bizitza barriko etxeak eregiten asi zan ezkeru, Joannategik Teresaren gogo-barrura zorroztu dau begia, Jainkoagaz zituen artu-emonik maitezkoenetara, Jain-

koak egiten eutsazan mesederik arrigarrienetara, Ama Teresak esanak askotan itzez itz jasota. Maitasunezko bizitza orrek maitasunezkoa eriotzean aurkitzen dau azkena. «Jainkoarentzat zuen amodioa ezin jasanez» il ei zan.

Santuon bizitzak idaztean izan dauan asmoa itzaurrean azaldu deutso irakurleari. Arimak salbetako lagungarritzat idatzi ditu. «Hori da nere bihotzak gutiziatzen duen guzia. Bai, izan dadiela bat edo bat, irakurtze saindu huni esker, zeruko bidean sartuko denik». Ez dau beste saririk nai. Berbok Teresari umetan jazoa gogoan ebala idatziak ez ete dirudie?

Joannategik bein asitako arlo au aurrerago eroan gura izan eban, urte guztiko santuen bizitzak idatziaz, egunerik egunera. Baifia bide edian gelditu zan; bagileranokoak bakarrik atera zituen.

AITA MANZISIBOR, Jestisee Lagundikoa

Joannategi beneditarrak osotu barik itxitako lana Manzidor jesuiteak amaitzea lortu eban, urte guztiko santuen bizitzak idaztea. Eta iru tomo ederretan atera zituen.

Au be ez da ibilli arimen onerako asmo barik. Joannategik lez itzaurrean autorpen ori egin deusku, bere Aita Loiolako Ifiaziori jazoa gogoratuaz: «Ez al zan ba Loiolako Eneko gaztea jaunaganatu deunen bizitzak irakurtzen ari zala? Zergatik ez aren senidei arek irakurtzen zituen antzeko santuen bizitzak ez antolatu euskeraz»? Eta aita jesuita onek orixe egin dau.

Teresaren bizitzan, urtillaren 15n, emakume deun oni umetan jazotakoa ez dau jaso barik itxiko: beronen bizitzan liburu onak (eta txarrak) izan eben eragifia agirian jarri deusku. Santuen bizitzak irakurteak biztu eutsen, ume-umetan, moro-errietara joan eta an arein eskuetan odola ixurtzeko gogo bizia, eta liburu onak, Agustin deunarenak eta beste batzuk, geroago, oso-osorik Jainkoarena izateko erabagi osozkoa arrazoko eutsen. Andik aurrera, berak moja-bizitza estuago eta zindoagoa eroateko bidea artuko dau eta beste

batzuei artu eragingo deutse. Orduan asten da Teresa barria. an-or-emen egingo dituen karraidegi barrien zortzaillea.

Aita Manzisidor onek ez deutso arrezkeroko joan-etorri guztietan jarraitzen. Naiago izan dau eta onuragarriagozat jo dau Teresak berak eginiko liburuen balioa eta ederra irakurleari gogoratzea. «Emakume onen idaztiak Eliza osoan ezagunak dira. Erderaz idatzi zun, baina ain gozoro, ain ederki; obeto ezin... Bere lagun izan zun Joan Gurutzeko-ren idaztiekin batera, ederragorik ez da. Al badezu, zeorrek irakurri, eta zeorrek ikusiko dezu egia diodala».

Idazle onek atseginez eta neke barik irakurteko liburua egin dau. Esatekoak lau-lau esaten eta jazorikoan kiribil barik eralten maixutat eta eredutzat dago. Norbaitek, aitua dan batek, Barojaren antzeko egin dau.

JOAKIN LIZARRAGA, Elkanokoa (1748-1835)

Elkanoko Lizarraga inoz izan dan Teresazalerik andienetakoa dogu, eta Napparok emon dauan euskal-idazlerik ugarienetakoa.

Jesuita izateko bidean joian, Karlos III garrenak Jesusen Lagundikoak atzerrietara bialtzea erabagi ebanean. Ezin emen jesuita jarraitu eta abadetako gelditu zan, bizi guztian bere jaioterrian abade izateko.

Erri txiki baketsua Elkano. Irunetik ur. Osoan euskalduna Lizarragaren egunetan. Geure egunetan be ezagutu izan dogu Elkanotik Irunera bitarteko erritar bat, euskalduna zana. Joakin Lizarraga bere abade-lanari emona dago. Asko ikasia da. Liburuzalea eta arimazalea. Asko irakurten dau eta asko idazten. Sermoi, santuen bizitza, kantu, bertso eta abar. Bere barruko sentierak, Jainkoaganako gogo-minak bertsoz adierazoten oso zalea da. Ez eban, alan be, bere bizian ezer argitaratu. Bera ilda gero argitaratuak ditu: Igan-detako platikak (beste norbaiten ikutu eta aldaketa asko dituela), San Joanen Ebanjelioa, Jesus (3.000 milla inguru bertsozko liburua), eta Frantzisko Xabierren bizitza. Apezte-xea jauna asi jaku, oraintsu, idatzi zituen idaz-lan guztien barri emoten, eta liburu barri batzuk ateraten.

Lizarragak osperik eta omenik andienetakoa Iortu dau euskerarentzat: berak itxitako euskerazko texto asko Naparroak Liturgian sartuak izatea, erdaldunentzat euskeratik erderara itzulita. Ama Teresaren liburuak ondo ezagutzen zituen eta erdal-idazleen artean be ez da asko izango, Teresazalatasunean geiago egingo deutsanik. Teresaren esanak eta aren bizitzako jazoerak, aren libururik geienetatik artuta, sarri aitutzen ditu. Eta ez da aitamen uts eta otsean gelditzen sarri; gorespenezko itzen bat ezarriko deutso aren izenari.

Santuen bizitza asko itxi zituan idatzita, eta Apezetxeak esan dauanez, luzeenak Xabierrena eta Teresarena ditu. Orraltio, bizitza biotako baten autorpen garbi au egin deusku. Santa au daukala berak bere «Amabitxi, Maestra, Patrona ta Abogada bear bezalakoa», Jesus onaren eta Ama birjifiaren urrengo. Non orri urrik emotekorik?

Euskal-idazleetatik Teresaren barruko bizitzan barruen sartu dana Lizarraga dogu. Aren umezaroa, gaztezaroa, moja sartuta gero oso Jainkoarena izatera biurtu zan arte erabilli zituen kezka, bere buruagazko burrukak, bizi bizi azaldu ditu. Lizarragarren luman bizi eta naiko zeatz agiri da Teresaren irudia, Jainkoagan murgilduta bizi danarena, Jainkoagaz beti biziteko minez dagoanarena, baifia erabateka Jainkoagaitik eta arimen onerako mundu onetan nekerik andienetan jarraitzeko biotza prest daukanaren irudia. Teresaren arimazalatasuna, bere bidean aurkitzen dituenak, batez bere arimaren zuzendariak, eleizgizonak, gero ta jainkozaleago ikusi gurea, oso begikoko egin jako Lizarragarri. Orregatik da ain Teresazale, eta aren laguntzaz, Jesusen eta Mariaren laguntzaz ostean, salbazifioa lortzeko itxaropena dau. Teresaren eskolan ikasi dau berak be arimazale izaten, eta bere menpean dituen arimak zerurabidean ipinten ain arduratsu.

Bizitza oneitako baten azkenean, Teresaren esaera-sorta bat be emon deusku. Euron artean sartu ditu aren bertso ospetsu batzuk. «Deusek etzaitela turba, deusek etzaitela lotsa»... eta: «Bizi naiz, eta ez ene baitan, eta alako biziain beira nago, ezi ez iltzeaz iltzen nago».

Orrez gaifiera, Pedro Alcantara deunaren bizitza Teresa-

ren itzez josita dauko. Ama Teresak leku berezia eukan Lizarragaren gogo-biotzetan.

SERMOLARIAK

Sturzaeta eta Aita Bartolo

Euskalduna ez da izan liburuak irakurteko zaletasun andikoa. Baifia sermolari eta bertsolari onak entzuten zalea bai. Euskerea irakurtetik barik, entzutetik sartu jako, begitik barik belarritik.

Sermoiak eta bertsolarien bertsoak luzeroan ez dabe izan liburutan agertzeko zorionik. Joan dan mendean, XIXn, elduzan batzuentzako eta besteentzako ordua.

Sermoi-libururik geienak kristinauak jakinbearreko egiak (Jainkoaren Legea, Kredoa, Sakramentuak) argitzeko, edo Domeketako Ebanjelioak azaltzeko izan dira. Orretara jo dabe ainbestek. Astarloa, Bartolo, Gerriko, Asteasuko Agirre, Kortazar, Aranaz Aita eta Iruretagoiena abadeak. Santuen sermoi gitxik ikusi dabe argirik euskeraz: Larramendiren Agustín donearenak, Azkue euskaltzainburu izanaren Jose Donearenak, eta beste banakaren batzuk.

Aitatu diran sermolarietatik bat da bakarrik santuen goramenezko itzaldirik edo Esaldiriak daukanik. Eta liburu orretan Ama Teresan goratzekoak bi aurkitzen ditugu. Biak dauke berba bardinakaz egindako zatirik, baina, bestela, bakotzak bere aria daroa. Batean Teresa, umetarik bere bizia Jainkoari eskeini gurez daukagu; baina gero, ori egin ezinean, lurra zero egitera joko dau, bere arimea zero, otoitz-bizitzaz, eta bazterra zero txiki, otoitz-lekuz eta Jaunaren etxez betez. Bigarreanean, Teresa Jainkoak gauza andietarako autatuko dau. Orretarako aparteko doiez bete dau: guraso onak, etxeko aziera ona, arima ederra, eta zerutiko grazi eta indarrak ugari. Gero, Teresaren erantzuna dator, diru barik, Jainkogango itxaropen utsaz bere lana aurrera eroatea. Olan-txe Karmeldarren bizia beinolako bikaintasunera biurtzen dau, eta bera jainko-bizitzarik zindoarenaren eredu eta irakasle egin da,

Noizik bein Aita Bartolok egindako sermoi baten zatiak itzez itz artu ditu.

Aita Astarloagaz, batera, Aita Bartolo dogu euskal-idazleen artean lenengoz sermoi-liburuak ateraten asi zana. Urte berean, 1816n, agertu ziran biak plazara. Aita Bartolok, urte orretatik 1819ra, iru tomo atera zituen, Ikasikizunak titulutzat ebela: Jaunaren aginduak azaltzeko tomo bi, eta Sakramentuak azaltzeko bat. Geiago aterateko asmotan asi zan, baiiia berak artu nai zituen saillak besteren batek (Astarloak) artu zituelako edo, ez eban asmo ori burutu.

Aita Bartolok berak urratutako bidetik jo eban, katekesi-gaiak emotetik. Markifiako Karmen ortotzeko sermolari zala, zeinbat santuen sermoi ez ete zituen egin an-or-emen? Baina katekesi-gaiak baino ez euskuzan emon, eta berak egin zituen osteango sermoirik ez da agertu.

Zorionez, itxi euskun bat, ederra, katekesi-gaiezko tomo baten geigarritzat sartuta, Ama Teresarena, ain zuzen. Bartolo izenaren geigarri Santa Teresarena artu eukan berak, eta, antza, ez eban gelditu nai izan bere Ama oni oparitxo au eskeini barik... Eta ez edozelango oparia, gero, bizi bizi eta bero-bero idatzia, berak beti idatzi oi zituenetakoa.

Gaia: Teresa emakume sendoa, asmo andiduna, egite andiduna, Jainkoaren indar eta laguntzaz. Asmoak andiak ditu, gora-gorazko pensamentuak, egite andi bardinbagakoak. Arentzat, goituko ez dauan eragozpenik ez dago. Ez gorputzeko gatx eta makaltasunik, ez ingurukoen esames eta gaizki esakarrik, ez batzuen eta besteen zemai eta azpi-jokorik; dana goitutzen dau. Erririk erri jarraitzen deutso sermolariak gero Teresa Amari bere komentugintzan eta eleizagintzan. Emakume mirarizko garra darabil. «Ain laster lege barriak egiten, eta ain laster ordenak emoten. Ain laster etxiak erosteii, eta ain laster eskaatzeko zeregiriak egiten. Ain laster eleixa barriak eta komentuak orniduten, eta ain laster monjai konzenziako dudak kenduten, Ain laster Erromarako kartak eskribiduten, ta ain laster aloberekuak topetan. Ain laster... Baina noz amaitu? Egunero kobru emoten eutsan gaixuari, orazifioiari, baruari, zilizioari, erregiai, obispoai, juezai, konfessoriai, prailiai, monjai, komentugintzai, eleixgintzax, alobe-

rekuai, zordunai, ta beste duke, markes, konde ta zerbaite-tako topau eben guztiai». Asmo andiak, egite andiak. «Guztiak Jesusen amodio santuaren izenean».

Or dogu Aita Bartoloren sermoigiritzaren eredu bat. Eta zerak samintzen gaitu: sermolari onek olango sermoirik geiago ez itxiak.

Lotsaz esango ete dogu? Euskal-literatura zarrean, tamalez auxe da karmeldarrak euren Teresari eskeifii eutsen opari bakarra. Literatura idatzian bakarra da, bai. Baina zeinbat olango sermoi ez ete ditu euskaldunak entzun, urterik urtera, Ama Teresaren egunean karmeldarren etxeetan? Zeinbat olango sermoik ez ete dabe biztu euskaldunen Teresazaletasuna? Euskalerriko biotzean dagozan Lazkau, Markina eta Zornotza-Larrean, Ama Teresaren egunak jai izaten ziran, eta inguruetako erriantzat otoi-leku eta erromerileku. Askori entzun izan deusagu ez dabela ikusi Gaztelako inongo erritan Ama Teresaren eguna Larrean baifio ospetsuago jai egiten. Zek giroa berotuta? Jai-eguneko sermolariak, aurki, ango euskerazko sermoiak, an urterik urtera entzunak eta ikasiak. Aita Bartolo ez da bakarra izan. Aita Bartolorik asko izan da. Euskalerriko karmeldegietan Ama Teresaren egunean. Eta gure erria, irakurteko zaletasun gitxikoa, baina sermolarien itzari ez entzunik egin ez deusana, ez da Ama Teresaren barririk ikasi barik egon.

Gure olerkariak, Ama Teresaren kantari

Euskal-olerkigintzak, joan dan XIXgarren gizaldian loraldi barria ezagutu ebala esan bearra dago. Olerki-sail barrietan sartzen gara. Epika barria eta lirika barria jaio da, giro berri baten besoetan datorrena, erriaren eta gizon-andra andien kantari. Giro barri onetan gorengo maillak jo zituana; Arrese Beitia, Otxandioko santugina eta olerkaria.

Santugina zanez, santuen eta giza-irudien moldatzaille dogu arrizko eta zurezko lanetan. Lumaz eta bertsoz Ian bardintsuari ekiten deutso, lumaz eta bertsoz be irudigille. Euskalerriko seme asko artu ditu kantagai: Legazpi, Okendo, Iiazio, Larramendi, Txurruka, Mendiburu, Iparragirre, Astarloa,

Nobia Salzedo, Manterola, Arana Goiriraino... Baina Euskalerritik kanpoko batzuei ez deuse bere kantua ukatu: Tomas Akinokoari, Colon eta Calderoni eta... Ama Teresari.

Ama Teresaren bertso batzuk euskeraz jarri zituen, baina emakume jainkozko au berau goratzeko be bertsokada bi baditu. Bata amaiauduna da, eta besteari, *amodiozko kantua* jarri deuto tituiutzat, *Jesusen Teresa santeari egina*, Teresa beraren egun baten egina, orraitio. Alan diiio berak:

Zabaltzen doa zeruan egun pozez betea,
alako santa arrigarria danarena.
Nok leukaken berberak eukan lako lumea,
nok amodio Jesusena!

Emeretzi olangoxe bertsokada ditu, Salomonen Kantuen Kantuko irudiz beteak. Otxandioko ola-gizonen maillu-taun-kadak gogoratzen deuskuezan bertsoak dira. Baina ezagun dau Foruen kantari ohea dala arimen barruko jazoera ixillen kantari baino. Foruen gaia ezagunago eta bereago dau arimen barru-barruko mundua baino. Eta beretzat auxe eskatu dau:

Bai, Karmeloko lirio zuri parebagea,
kantau daizudan zure egun au jagitean;
jarri nagizu beian itxirik zoru tristea,
Sion-go mendi ederrean.

Beste olerkari batzuk

Bat baino geiago alegindu dira Teresaren bertso eta bioz-keta ezagunenak euskerazko soiiiekoz jazten. Arrese Beitiak, esan dogunez, egin eban emen zeozer, «Dichoso el corazon enamorado» euskeratuz. Euskerara geien itzuliak, alan be, «Nada te turbe», eta «Vivo sin vivir en mi» izan dira. Elkano noko Lizarragak bata eta beste euskeratu zituen. Bigarrena, Migel Antonio Inarrak be bai, «Teresaren Biozketak» izenpean.

Orrez gaifiera, aitatu daiguzan beste batzuk Teresaren kantarien artean. Gazteizko Apaizgaitegian, aspaldi dala, baziran Teresaren izeneko «Academia» bat, eta kardaberaztarren tal-
is

dea. Giro orretan sortutako bertso batzuk, Teresaren omenez eginak, bai euskeraz eta bai erderaz, ango «Gymnasium» aldizkariak argitaratu zituen. Euskerazko batek Lekuona zarrarena dirudi, eta, Inarrarenarekin batera, KARMEL'en orriotan ikusiko ditu irakurleak.

Eta, erdal-aldizkari baten purgatoriotik aterata, emen ikusiko da beste olerki bat, Aita Martin Uriarte izan genduanarena. Geroago, 193In, KARMENGO ARGIAREN zuzendari izango zanak, 1902n, Burgosen Teologi-ikasle zala, ango Karmeldarrak ataraten eben «El Monte Carmelo» aldizkarian argitaratua da, bearbada aldizkari orrek bere bizi guztian (oraindik bizi da), atera dauan euskerazko Ian bakarra. Orduko ikasie gaztek, ez dakigu zelan, lortu eban bere euskal-lanen asikifi ori aldizkari atan sartzea.

Teresa deuna euskerazko eleiz-kantutegian sartu da

Gure ustez beste irion jazo ez dana, Ama Teresa bere barruko biozketarik barrukoenakaz, euskerazko eleiz-kantutegian sartuta daukagu. Ama Teresak bere sentierarik Jainko-egarrizkoenak ixuri ditu euskeraz euskaldunen agotik. Euskaldunak Teresaren biozketa orreik bereak egin ditu. «Vivo sin vivir en mí», Teresaren bertso ezagunak eleizetarako euskal-kantutegian berreundik gora urte daroez. Gaurko argitaraldi barrietan be an jarraitzen dabe, euren soinu ta guzti, bat beintzat Aita Donostik aurkitua.

Nor izan dabe euskeratzaille? Nor izan da gure kantutegietan lenengoz sartu zituena? Nor da Kantiko Izpiritualak deritxon liburuaren lenengo egillea? Ama Teresaren euskerazko bizitza lenengoz egin ebana bera, Bernard Larregi, dago bai kantutegi orren eta bai Ama Teresaren bertso orreik egilletzat. Larregi onen Testamentu Zahar eta Berriaren itzaurreetan esaten dan lez, bein be ez dira aztuko orrek «eman dituen kantiko gozo eta xarmagarriak; bihotza badaramate Jainkoaren maitatzerat». Teresazalea badala agertu dau Teresaren bizitza bere liburuan sartzean, eta garbiago erakusten dau, bertsook euskaldunen ago tan jarri nai izan ditueanean. Eta, au arrigarria, euskaldunon biotzetan sartu egin dira. Lenengo Lapurdin, eta gero Zuberoan.

Zuberoan itzulpen bitan zabaldu dira, Larregirena bata bertako euskerazko ikutu batzuekin, eta bestea, itzulpen barrria, Zuberoko euskera garbiagokoa, eta Teresaren berbai josiagoa. Azkenengo onen zati batzuk joango dira emen, eta ageri danez, ez dabe erderazko texto bardiiia euki aurrean, eta euskeraz Larregirenak eta onek ez dabe bertso neurri bardiiik erabilli:

Arrainak huretik jalki den bezain sarri,
urhentzentu penak, halaber bizia:
 balius zaio hitzia;
bena penareki bizi den kristiari
bethi zaio kharats bizia gertatzen.
 Sos nagoela zeliari,
ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.

Zu nahi zuntuket ikusi zelieta;
finizazu, othoi, ene agonia;
 noiz duket hiltzia?
Debeiatzen nuzu katifia zar hoietan,
sob era nizie pena eraziten,
 heriua dizut goguan,
ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.

Arritzekoa da, benetan, bertso oneik gure errian izan dabena, oiartzuna eta abegia. Gure ustez, ez da beste ifion antzekorik jazo. Zer esan ete eutsen eurak gure eleizetako erri kantariari?

Bertsook eta Azkue

Azkue andiari bertsook berarizko kilikilia edo egin eutsen bein, eta bertan asi ei zan eurak musikaz, sofiuz jazten. Begonako karmeldarren etxean ei egoan egun batzutako etorrita, eta gau batez, zeozergaitik lo arinduta, oetik jagi eta maian eukan Ama Teresaren liburu bat zabaldu dau eta bertso orreik jarri jakoz begien aurrean. Beingoan eurai musikea ipini bear eutsela emon eutsan gogoak, eta asi ta amaitu, bai jarri be. Musika egokia, ederra, sarkorra, biotz-

-ikara gozoa eragitekoa. Egilleak karmeldarrai itxi eutsen egun areitako gomutagarritzat. Euskalerriko karmeldarren musika-artxibo guztietara zabaldu zan. Eta andik aterata, Azkue bizi zala eta beronen baimenaz, Aita Jose Domingo musikalariak, argitara emon eban. Bigarren argitaraldi bat «La Gran Enciclopedia Vasca» dalakoan izan dau.

Azkuek erderazko bertsoai ipini eutsen soinua, baina Jose Domingok egindako argitaraldirako euskerazkoa be ipirii jakon, eta bear zanez, erdarazkoaren neurrikoa. Ona zati batzuk:

Biotzean daramat
maitasun katez Jainkoa,
ni Aren jabe naizela,
Bera nere menpekoa.
Baina ezin onetsiz Jauna
nere menpe ikustea,
ilgarri zait ez iltzea!

Au biziaren luzea!
Au erbeste ezin jasana!
Au sare ta burdin arte,
emen esturik naukana!
Epe au noiz amaituko,
bai. oinazea nerea!
Ilgarri zcdt ez iltzea!

Utzi nazak bein, bizia,
utzi! Ez akit mingarri.
Igaltzea bai neretzat
bizigarri ta pozgarri!
Ator, erio, maite, ator;
ator, zeru-ekarlea;
Ilgarri zait ez iltzea!

Emen emoten deusat azkena neure Ian oni. Ez dot sartu nai izan gai onen barruan euskeraz egin dan guzia. Ez dot sartu Ama Teresaren Bederatziurrenik (bat zar samarra dago, joan dan mendearen erdikoa). Ez dot aitatu

Euskai-Esnalean 1930n agertu zan *Aolkuak* (Teresaren lantxo bat euskeraturik), ez beste KARMENGO ARGIA-ko lanik. Aolkuak oraintsu il dan donostiar batek euskeratuak dira: Jesus Olea zanak egin zituen. Oraindik bizi diranen lanik ez dot aitatu nai izan. Orregatik ez dau emen aitamenik euki Teresaren liburu baten itzulpenak: *Onbidea* (Camino de perfection). Itzulpen barriak be bidean datoz. Bidean da Ama Teresaren Bizitza barri bat, orain artean izan eta aitatu diranak baifio luzeago eta beteagoa. Guztiok gerokoen epai-mairako gelditzen dira.

Eta orainarteko zarrai begituz, zer esan? Asieran esana: ez dala asko, baina ez dala gauza utsa. Euskalerria Teresarentzat egiteetan izan da luze, baina itzetan laburtxo. Euskaldunen izakereari dagokiona da. Teresak be baekian ori. Barriketa gitxikotzat euki ginduzan. Orregatik, aurretiaz parkatuko deuskulakoan, bildur andi barik esan daikeogu etxerik etxeko, gure eske-kantuetan esan oi dana: Ama Teresa, gutxiagatik, parkatu.

L. Akesolo